



## Eman hegoak euskarari



# Bixente Serrano Izkoren egunerokoa

Literatura, politika, gizartea eta filosofia uztartuz  
Serrano Izkok bere munduaren azalpena utzi digu testuan

JON KORTAZAR



**E**sango nuke ez zaidala oharkabeen pasatu Bixente Serrano Izkoren liburu mardul hau. 'Ene iratxoekin solasean' deituriko egunerokoa gogo onez eta agerian jarri nuen apalategian, ez ahazteko moduan. Gainera, egunerokoa aspaldi ditut atse den toki. Eta gaur irakurtzeko beta hartu dudanean, beta luzea behar baitu liburuak bere zabal-tasun eta aberastasunagatik, 2020an agertu zela ikusi dut. Harriduraz ikusi ere bai, esango nukeelako ez dudala ahaztuta utzi.

Ezustekoa handiagoa izan da ikusi dudanean Bixente Serrano Izkok 2020 malapartatuan zendu zela Iruñean. Horregatik ere,

areagotu egin zait lehenago liburu irakurtzeko nuen gogo.

### Omenaldi gisako argitalpena

Omenaldi itxura hartu du apika argitalpenak, baina erabateko erabakia hartu du: 'Ene iratxoekin solasean (Atzera begirako egunkaria, 1990-1998)' hau irakurri, bai ala bai.

Egunerokoen edo egunkarien irakurle zalea naizela esan dut. Andrés Trapiello izan dut gidari. Jon Juaristirena, Mario Onaindiarena, Teo Uriarterenak izan ditut lagun bidean. Sánchez Ostiz ere ez dut saltzeko. Zoritxarrez euskaraz ez dira hainbeste. Ezin dut ahaztu niretzako hainbat kontutan maisu dudana Fermín Irigaray 'Larreko'ren 'Guda

urte, gezur urte' Bixente Serrano Izkoren moduan iruindarra bera ere. Gogoan ditut Mikel Hernandez Abaituaren kultur garaia erretratu fina... eta gerra garaiko oroimenak (Zubikarai, Onaindia eta abar).

### Bizitza intelektualaren ibilbidea

Jakin nahi eta irakurri gogo handiarekin ekin diot ba orriak leitzeari. Ohi den egunerokoaren orde, beste zerbait aurkitu dut Bixente Serrano Izkoren honetan. Bizitza intelektualaren ibilbidea da liburuan eskaini zaiguna, irakurritako liburuen harira sorturiko pentsakizun bilbe ederra eta aberatsa. Neurri horretan irakurritako liburuak lehen pausoak dira mundu ikuskera zaba-

la agertzeko moduan eta orduan.

Honela aitortu du bere irakurle ohitura Bixente Serrano Izkok: «Aspaldi diat ohitura, gomendagarria den ez dakidana baina niretzat bederen bai, lauzpabortz libururen irakurketak aldi berean egitekoa, batetik bestera saltoka, egunero» (146). Ohitura horrekin batera ageri du sortzailak egile jakin batzuei agerturiko atxikimendua. Nahas-mahas egindako irakurketa horien artean badira nagusitzen diren zenbait. Eta haiei loturik ageri dira egunkarian denbora luzeko pasarteak. 1996an, Nietzsche da nagusi. 1997an, Joxe Azurmendiren liburu batek lotzen du Bixente Serrano Izkoren arreta, eta hari jira eta bira darabil pentsakizuna. Edo, beste alde batetik oratuta, badira han eta hemen etengabe ageri diren idazleak: Carlos Fuentes oso gustuko du egileak eta maiz eman ditu haren aipuen berri bere zertzelada aberasgarriak gaineratuz.

### Irakurketen egunerokoa

Egunerokoa ez du jarraitu egunez eguneko bete beharra, nahi

ere ez. Ibilbide intelektualak bere bide propioak ditu. Egun batean urte batzuk lehenago irakurritakoa ekarri du hizpidera, eta maiz, argitaratu gabeko iruzkina eman du orriotan. Besteetan, idazle miretsi bat uzten digu begien aurrean: esperokoa, Joseba Sarrionandia edo Bernardo Atxaga, eta bereziak, Karlos Linazasororen kasuan bezala.

Literatura, politika, gizartea eta filosofia uztartuz Bixente Serrano Izkok bere munduaren azalpena utzi digu testuan. Hemen batez ere Literatura eta Filosofia aipatu ditugu, baina Nafarroatik ikusitako abertzale-sunak pisu handia du liburuan zehar.

Hitz zorrotzez bere asmoa ongi azaldu digu: «Neure biluztasuna, neure huskeria jasanezin nuenez, maskara bat behar nian. Eta hona hemen liburu hau. Mozorro, maskara, pertsona egiten nauen liburu hau». Gure gizartearen irudi bitxia den liburu. Bixente Serrano Izkoren erretratu osoa.

## Euskarazko krimen-literaturaz

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Krimen-nobelak beti erakutsi du osasun ona –nork ez du irakurri Agatha Christie, Conan Doyle edo Poeren istoriorik?– eta liburu salduenen zerrendetako lehenengo postuetan agertu ohi dira genero beltzekoak.

Liburu honek gonbit egiten digu genero poliziakoaren ezaugarriak eta kodeak ulertzeko euskal sistema literarioaren obren zein idazleen bidez. López Gasenik hitzaurrean dioenez, bizitasun ikaragarria hartu duen genero ustez periferiko bati merezi duen arreta eskaini behar zaio. Horretarako, genero honen definizioak, arauak eta mugak argitzen dira. Todorovi jarraituz, krimen-literaturak bi elementu nagusi ditu, krimena eta ikertzailea, hiru modutan gauzatu daitezkeenak gaien aldetik (enigma-eleberria, eleberri beltza eta suspensea).

Behin generoaren oinarriak eta izaera definituta, hasiera

ematen zaio ikerketaren atalari. 14 kapitulutan euskaraz argitaratu diren intrigazko eta misteriozko eleberrien titulu eta autore garrantzitsuak azaltzen dituzte egileek; batetik, liburu jakin batzuetan jartzen da arreta: '110. street-eko geltokia', Aingeru Epaltzaren hiru eleberri intrigazkoak, 'Gizona bere barkadadean' eta Itxaro Bordarenak. Bestetik, lau idazleren gako narratiboak aztertzen dituzte, Harkaitz Cano, Jon Alonso, Jon Arretxe eta Ramon Saizarbitorienak. Halaber, genero beltzean gaztelaraz publikatu duten Euskal Herriko bi autore entzutetsu hartu dira aintzat, Ramiro Pinilla eta Dolores Redondo. Iker-



**EGUNGO EUSKAL KRIMEN-LITERATURA**  
J. M. LÓPEZ GASENI/ J. KORTAZAR (arg.)  
EHU. 322 or. 20 euro

lana osatzeko, azken lau artikuluk eduki hauek jorratzen dituzte: nobela poliziakoaren lekua Haur eta Gazte Literaturan, krimenaren iruditeria eleberrien azaletan, 'Sator lokatzak' lantzeko proposamen didaktiko bat eta euskal poliziano-bela eta munduko literatura-ikerentzaren arteko lotura.

Ale mamitsu hau irakurri ondoren, ez dago dudarik krimen-eleberrien sendotasunaz euskal literaturan ez haren erakarpenaz ere.

## LABUR LABUR


### Euskaltzaindiak 329 forma berri jaso ditu

EL CORREO

Euskaltzaindiak 329 forma berri jaso, eta 306 moldatu eta findu ditu azken sei hilabeteotan, eta moldaketa zein berrikuntza guztiak Euskaltzaindiaren Hiztegiari erantsi dizkio. Akademiak urtean bitan sareratzen ditu berrikuntzak, 2016an Euskaltzaindiaren Hiztegiaren bigarren argitalpena paperean atera zenetik, eta 2021eko bigarren urterdian eginiko lanaren emaitzak jasotzen ditu berriki sareratu den eguneratzeak.

Hitz hauek gehitu dituzte azken ekinaldi honetan, besteak beste: apuratu, narko, hormatza, efektibo, dietista, kafetxo, ponentzia, artefaktu, arpilatze, faktoria, light, literal, lurrazpi, joskintza, partzela, tik-tak, txikitero, pisukide, ibuprofeno, doktrinamendu, podcast...

Azpisarrera berrien artean ere badira berrikuntzak. Esaterako, arrisku(-)egoera, haur(-)eskola, orri(-)bazter, setio(-)egoera, sexu(-)abuse, sexu(-)jeraso, hil



Euskaltzaindiaren egoitza.

ala biziko, lan(-)istripu, larrialdi(-)zerbitzu, off-eko ahots, berri(-)agentzia, klima(-)aldaketa, klima(-)larrialdi, eskuliburu, foru(-)zuzenbide gehitu zaizkio hiztegiari.

Gaur egun, Euskaltzaindiaren Hiztegiak 49.596 forma ditu guztira, 40.002 sarrera eta 9.594 azpisarrera.

## SALDUENAK

FIKZIOA

### 1 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

### 2 Eraikuntzarako materiala

Eider Rodriguez. Susa

### 3 Kantu bat gara

Jon Maia. Elkar

### 4 Izurdeen aurreko bizitza

Kirmen Uribe. Susa

EZ FIKZIOA

### 1 Mandamentu hipermodernoak

Iñigo Martinez. Elkar

### 2 Egunkaria, gizarte zibilaren arrakasta

Joan Mari Torrealdei. Elkar

### 3 Txori Urdinak

Zigor Olabarria. Argia

### 4 Kontrato eztaerrik

Uxue Alberdi. Susa